

zumaiia

17. zenbakia • 2011ko urria

ZU

udalaldizkaria



Zumaiko Udala



Mugikortasun ohiturak aldatuz,
herria jasangarriago eginez

Zumaiko Udalak, azken urteotan, apustu sendoa egin du herriko mugikortasun ohiturak pixkanaka-pixkanaka aldatu, eta Zumaia jasangarriagoa egiteko

aurkibidea

2 Txalupa zerbitzua

3 Inkesta

4 Udala zuzenean / Fototeka

5 Eguneko zentroa

6 Motxian

8 Mugikortasuna

12 Elkarrizketa alkateari

14 Hondakinen kudeaketa

16 Alde Zaharraren berritzea

17 Udaleko liberazioa

18 Alderdien iritziak

20 Agenda

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Zumaiazu aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiaiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Zumaiaiko Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 4.500 ale
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; Turismo bulegoa



Zumaiaiko Udalaren turismo bulegoa Kantauri enparantzako 13. zenbakian dago. Udako turista denboraldia bukatu ostean ere, lanean jarraitzen dute. Gainera, turistaren beharrei erantzuteko ordutegi berriarekin hasi ziren lanean, irailean. Hala, orain arteko neguetan baino ordutegi zabalagoa eskainiko dute hemendik aurrera.

Ekainera bitartean honako ordutegia izango du Zumaiko Turismo bulegoak: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igande eta astelehen goizetan itxita izango da bulegoa. Bertan, Zumaiko eta inguruko herrietako informazioa eta dauden bisita gidatuetako informazioa eskuratu daiteke. Horretaz gain, Mugi zerbitzuko bizikleten alokairuaren informazioa, sarreraren salmentak, ibilaldiak... eta beste hainbat kontu ere aurki daitezke bertan.

La Oficina de Turismo del Ayuntamiento de Zumaia amplía su horario de atención al cliente, y permanecerá abierta de martes a sábado desde las 10:00 hasta las 14:00 y desde 16:00 hasta las 19:00. Menos los domingos por la tarde y los lunes por la mañana, que estará cerrado, la oficina facilitará información de Zumaia o de la comarca; además de dar a conocer las visitas guiadas que se realizan en el municipio. La oficina se encuentra en el número 13 de la plaza Kantauri.

Zein da zure iritzia azken aldian Mugi zerbitzuan gertatzen ari diren txikizioen inguruan?



Jesus Mari Arregi

Egindako txikizioak gaizki iruditzen zaizkit. Zumaia bezalako herri batean horrelako zerbitzua eskaintzea oso egokia da, baina ezin dira azken aldiko arazoak errepikatu. Hala ere, horrelakorik ez gertatzea zaila da.

Me parece mal lo que está sucediendo. Es de agradecer tener este servicio en un pueblo como Zumaia, pero los problemas de los últimos meses no pueden seguir. Aunque me parece muy difícil que no pasen cosas como estas.



Arritxu Ernabide

Oso gaizki iruditzen zait zerbitzu bat horrela izorratu nahi izatea. Gaiztakerirako denak prest izaten gara, eta ez dakit nik gaztetxo edo helduagoen kontuak diren txikizio horiek. Zerbitzu oso polita iruditzen zait, herri barruan mugitzeko. Bizikletan jakingo banu, neu ere ibiliko nintzateke.

No me parece normal querer estropear un servicio así. Yo no se si es cuestión de los jovencitos o no. Creo que este servicio es muy bonito para el pueblo, y da muchas posibilidades para moverte en el pueblo.



Sebastian Lazkano

Gaizki iruditzen zait gertatzen ari dena. Nik uste, zerbitzua erabili ezin duten askok erabiltzen dutela, eta horri irtenbidea bilatu behar zaio. Nik neuk zerbitzuko erabiltzaile izateko informazio eskuratu nuen, ez nintzen erabiltzaile egin; neure bizikletan ibiltzen naiz.

Me parece mal lo que esta pasando. Creo que mucha gente que no puede usar lo hace, y hay que encontrar una solución al problema. Yo pedí información para ser usuario del servicio, pero no lo soy.



Jose Luis Alzaa

Ez da zentzuzkoa horrelako gertaerak pasatzea. Zerbitzua konpontzeak gastu galanta sortzen du, eta zumaia guztion artean ordaindu behar dugu. Gaztetxo gutxi batzuegatik guztiok ordaintzen ditugu konponketak-eta. Gainera, zerbitzuaren erabiltzaileak ere ezin erabiltzaileak dira.

No es lógico que pasen estas cosas. Reparar el servicio supone un gran gasto que debemos pagar entre todos. Por unos pocos jóvenes todos pagamos las reparaciones.

udala zuzenean



Zumaiaiko Udalak apustu sendoa egin zuen Mugi zerbitzua herrian ezartzean. Ez da erraza inguruotan Zumaia bezalako herri batean Mugi bezalako zerbitzu bat bilatzea. Gurean, bada. Baina guztion ardura da zaintzea. Guztiona da zerbitzu duin bat zaintzeko ardura.

Aspaldian txikizio ugari izan ditu zerbitzu horrek, eta gutxi batzuegatik, beste erabiltzaileak zerbitzua ezin erabiltza gelditzen ari dira. Udalak berriro ere zerbitzu horren aldeko apustua egin du, baina herritarrek arduraz ez badute jokatzeko, zerbitzuaren etorkizuna beltza izango da.

el Ayuntamiento de Zumaia en su afán de promover la movilidad sostenible apostó por el servicio de bicicletas Mugi. Servicio que no es fácil de encontrar en un pueblo de las dimensiones de Zumaia y que en nuestro pueblo lo podemos disfrutar. Pero es responsabilidad de todos cuidar las bicicletas y las instalaciones para ofrecer un servicio digno.

En los últimos meses ha habido muchos destrozos, y por unas pocas personas otras se han quedado sin poder utilizar las bicicletas para desplazarse por el pueblo. El Ayuntamiento apuesta otra vez por mantener la iniciativa, pero si la ciudadanía no responde con responsabilidad el futuro del servicio será incierto.

Fototeka



nolakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzen Zumaiaiko argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiairek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa www.euskomedia.org helbidean dago ikusgai.



Zumaiaiko Zaharren egoitza eta Arritokietako ermitaren ikuspegia.

Vista general de la Residencia de Ancianos y la ermita de Arriroquieta de Zumaia



Kaiako irudiak 1945eko uholdearen eraginez. Tamalez uholdeak oso ohikoak izan dira Zumaian.

Imágenes de las consecuencias de la inundación de 1945. Posteriormente ha habido numerosas inundaciones.

La gente en la playa de Itzurun. Parece que la imagen es de principios del siglo XX.

Eguneko zentroa, erabiltzaile berrien bila

Eguneko zentroak asteko egun guztietan eskaintzen du zerbitzua, eta erabiltzaile berrien zain dago, gaur egun.



Urrian bete ditu 7 urte Zumaia-ko Eguneko zentroak. Astelehene-
tik igandera, egunero-egunero
herriko hainbat laguni. Eta egunero-
egunero hainbat eta hainbat ekintza eta
tailer egiten dituzte bertara joaten diren
adinduek.

Aste osoan ematen da zerbitzu hau
Brankan bertan. Eguneko zentrora pro-
grama ezberdinen bidez joaten dira he-
rriko adinduek eta aste osoan, astegune-
tan edo asteburu eta jai egunetan jasotzen
dute zerbitzua. Bakoitzak nahi duen be-
zala, alegia. Beti ere beharrezkoak diren
baldintzak betetzen badira, noski.

Gaur egun, asteburu eta jai egunetako
12 plaza daude, eta 2 erabiltzaile baka-
rrik. Beraz, asteburu eta jai egunetan
zerbitzu hori erabiltzeko interesa duenak
Zumaia-ko Udaleko Gizarte Zerbitzuetara
jo besterik ez du. Han azalduko dizkio-

te zein diren zerbitzu horren nondik no-
rakoak, eta zein programa dauden abian.

Zerbitzua

Brankan egunero elkartzen dira ekint-
za eta aktibitate ezberdinak gauzatze-
ko. Astelehene-ostiralera bitartean
9:00etatik 17:00ak arte izaten dira ber-
tan, eta norbere autonomia eta kapazi-
tatea mantentzeko helburuarekin egiten
dira ekintzak. Asteburu eta jai egunetan,
beriz, 10:00etatik 16:30etara bitartean
ematen da zerbitzua. Egun horietan,
aisiari zuzendutako ekintzak gauzatzen
dituzte, batik bat. Urtean pare bat aldiz,
irteerak ere egiten dituzte.

Zerbitzu honetako erabiltzaileak, gaine-
ra, etxepean jaso eta bertara itzultzeko
zerbitzu adaptatua ere badu. Beraz, gur-
pildun aulkian daudenenek ere ez dute
arazorik izango.

el centro de día de Zumaia acaba de cumplir su séptimo aniversario. De lunes a domingo, día tras día, los mayores de Zumaia acuden a sus instalaciones y ocupan su día con actividades y talleres con el objetivo firme de no perder su autonomía ni sus capacidades.

Algunos son usuarios de todos los días, pero también los hay que solo acuden los fines de semana y días festivos; cada cual adapta el servicio a sus necesidades, siempre y cuando cumpla con los requisitos necesarios. El centro dispone de 10 plazas libres para los fines de semana y días festivos.

Familia eguna, egoitzan



Irailaren 24an, urtero egin ohi duten bezala, San Juan egoitzakoek Familia Eguna ospatu zuten. Eguraldia lagun zutela arratsalde ederra pasatzeko parada izan zuten egoitzako egoiliarrek beren senideekin. 140 heldu eta 25 ume hartu zituzten egun horretan egoitzako egoiliar eta langileek. Denak festa giro apartean pasatu zuten arratsa. Zumai txarangak alaitu zien merienda ordua, eta denek ere gustura bukatu zuten eguna.

San Juan egoitzako arduradunek, eskerrak eman nahi dizkiete Familia Egunean parte hartu zuten egoiliarren senide eta lagun guztiei.

El 24 de septiembre, como cada año, la residencia San Juan celebró el Día de la Familia. El buen tiempo dio oportunidad de pasar una hermosa tarde, tanto a los residentes como a sus familiares. 140 adultos y 25 niños disfrutaron del ambiente festivo junto con los residentes y el personal de la residencia.

La Banda Zumai alegró la hora de la merienda, y los asistentes mostraron su satisfacción al final del día. La residencia San Juan, quiere agradecer su participación a todos los residentes y a los asistentes del Día de la Familia.

Euriak ez zuen Olarro Eguna zapuztu



Euria goian behean izan bazen ere, irailaren 17an, larunbata, Olarro eguna egin zen urtero egin ohi den bezala Zumaian. Euriak ez zuen inor beldurtu, eta jende ugari ibili zen Zumaiako kaleetan barna, goizean eta arratsalde partean.

Goizean, besteak beste, batel estropada eta lehiaketa gastronomikoa izango ziren. Bi ekimenetan parte hartze handia izan zen, eta hori poztekoa da.

Olagarro zopa goizean, eta brotxetak arratsaldean dastatzeko aukera paregabea ere izan zuten herritarrek, nahiz kanpotik herrira etorri zirenek.

A pesar de la lluvia que hizo, el 17 de septiembre, se celebró el día del Pulpo en Zumaia, como se suele hacer cada año.

Por la mañana, entre otras cosas, hubo estropada y un concurso gastronómico. En las dos iniciativas, la participación ciudadana fue alta, y esto es de agradecer y valorar. La sopa de pulpo se pudo degustar por la mañana; y hubo la oportunidad de saborear las brochetas de pulpo a la tarde.

Udako datu onak



Ekainaren 15etik irailaren 15a bitartean, turismo datu onak izan ditu Zumaiako Udalaren Turismo bulegoak. Epealdi horretan, 14. 230 bisitari izan ditu, iaz baino % 19,33 bisitari gehiago.

Bisitari horien % 54,17a espainiarrak izan dira, eta %21,96a, berriz, Europako beste estatuetatik etorri dira. Besteak beste, Frantzia, Italia, Ingalaterra eta Herbeheretako bisitariak izan dira herrian. Herrialde Katalanetatik etortitako bisitariak ere esanguratsuak dira, izan ere %19,01a izan dira.

Turismo bulegoko datu onez gain, herriko okupazioako datuak ere oso onak izan dira.

El verano ha dejado muy buenas cifras en la Oficina de Turismo. Desde el 15 de junio al 15 de septiembre la oficina ha tenido 14.230 visitantes, un 19,33% más que al año pasado. 54,17% de estos visitantes, eran españoles, y el 21,96% provenían de distintas partes de Europa: principalmente de Francia, Italia, Inglaterra y Holanda.

Además de los buenos datos de la Oficina de turismo, el verano, también ha dejado buenos datos de ocupación.

Zakila bira arrakastatsua, aurtengoan ere



Giro ederrean ospatu zen Zakila Biraren XV. Edizioa. 700 parte hartzaile inguru izan ziren proban. Hirugarren kilometroan alde egin zuen aurrealdeko taldetxotik David Martinek (1:08:06) eta helmugarainoko bidea bakarrik egin zuen, bigarren sailkatu zen Xabat Manzisidor.

Emakumezkoetan, Claudia Beobidek (1:18:30) ere erraz egin zen garaile, Lurdes Oiartzabal ia zortzi minutua tera baitzizkion. Zumaiarren artean, Jonan Rodriguez eta Sonia Albarez izan ziren helmugaratzen lehenak Juan Carlos Zendoia atleta ohiak eman zion hasiera lasterketari, eta amaieran merezitako omenaldia jaso zuen.

La XV. Edición de la Zakila Bira se celebró en muy buen ambiente. Aproximadamente 700 participantes recorrieron la media maratón que ganaron David Martín (1:08:06) en la categoría masculina y Claudia López (1:18:30) en la femenina.

David Martín escapó en el tercer kilómetro e hizo todo el recorrido hasta la meta solo. El segundo en llegar fue Xabat Manzisidor.

Claudia López se impuso con facilidad y adelantó en casi ocho minutos a Lourdes Oiartzabal. El ex atleta Juan Carlos Zendoia dio el pistoletazo de salida a la carrera y al final de la prueba recibió un merecido homenaje.

Mugikortasun ohiturak aldatzen

Herria gero eta jasangarriago egiteko pausoak indartuz doa Zumaia Udala

El Ayuntamiento de Zumaia va con paso firme para que Zumaia sea cada vez más sostenible



Zumaia Udalak azken urteotan herritarren mugikortasun ohiturak aldatu, eta pixkanaka-pixkanaka gure egunerokotasuneko ekintza txikiekin Zumaia gero eta jasangarriagoa egitea izan du helburu. Bide horretan, herria oinezkoentzako zein txirrinduan ibiltzen direnentzako egokitzen joan da gutxika. Horretaz gain, herritarrek garraio publikoa erabiltzeko ohitura hartzea sustatu du, eta behar izan den kasuetan garraio publiko zerbitzu puntualak jarri ere egin ditu. Hori izan zen aurreko legealdiko filosofia, eta horixe da gaur egungo Udala Gobernuak jarraitu nahi duen bidea. Altor Leiza Ingurumen Batzordeburuaren ustez, "Zumaia gero eta jasangarriagoa egiteko bideak jartzen ari da etengabe Udala. Herritarrak pixkanaka-pixkanaka ohiturak aldatuz, lortuko dugu gure helburua".

Bidean aurrera egiteko, badira dagoeneko zenbait zerbitzu abian, herrian. Hala, hor da Mugi zerbitzua, alde batetik. Zerbitzua erabiltzeko bidegorrien sarea ere gero eta handiagoa da herrian, eta laster bukatuko da Jadarretik Txikiardiko biribilgunera arteko zatia. Ondoren etorriko da Gipuzkoako Foru Aldundiak egitea hitz emanda duen zatia; Txikiardiko biribilgunetik Naruondo auzora artekoa, alegia. Bestetik, irailera arte abian izan da Auzobusaren proiektu pilotua; urritik aurrera, berriz, Taxibus zerbitzua eskaintzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

el Ayuntamiento de Zumaia ha apostado por cambiar poco a poco los hábitos de movilidad de la ciudadanía. Con pequeñas acciones



Auzobusa

Mugikortasun eredu berri baterako bidea urratu nahian 2010eko uztailaren 12an jarri zen Zumaiaiko auzobusa. Zerbitzu berri horren bidez, Udalak zerbitzu berri bat eskaini nahi zien herritarrei. Hala, ordura arte Euskotrenek eskaintzen zuen autobus zerbitzua osatzeko Auzobusa jarri zen Zumaia eta Oikia artean. Beti ere, oikiarrekin hitz egin eta beraien beharretara egokituta. Erabiltzaile gehienak oikiarrak izan baitira.

Zerbitzua abian jarri zenean azaldu bezala, proiektu pilotu bat izan da Auzobusarena. Iñaki Agirrezabalaga alkatearen azaldu duenez, "urtebeteko balorazio positiboa" egiten dute. "Gure asmoa, Euskotrenek eskaintzen zuen zerbitzua osatzea izan da, eta lortu dugu hori", adierazi du.

Proiektuaren hasieratik bazekien proiektu defizitarioa izango zela, baina hori baino garrantzitsuagotzat jo zuten herritarrei zerbitzu hori eskaintzea.

Zerbitzuak erabiltzaileak izan ditu, eta Agirrezabalagaren hitzetan, "gure zerbitzua baloratu eta erabili dute". "Gure helburua garraio publikoa sustatze aizan da betidanik, eta proiektu horrekin ere hori lortu nahi izan dugu", adierazi du.

Auzobus zerbitzua urtebete betetzear zela, Gipuzkoako Foru Aldundiak Taxibus zerbitzua jarri zuen abian landa-eremuetan edo populazio-dentsitate baxuko inguruetan turismo ibilgailuetan bidaiarien herriarteko garraio publikoko zerbitzu berezia eskaintzeko.

Foru Aldundiak zerbitzu horren bidez autobusen bidez eskaintzen den herriarteko garraio publiko erregularra osatzea eta sustatzea du helburu. Hau da, Auzobusaren helburu bera beteko duen zerbitzuak eskaintzen du orain Tasi zerbitzuak.

Hori horrela, Zumaiaiko Udalak Auzobus zerbitzua bertan behera uztea erabaki zuen irailaren bukaeran. "Guk

garraio publikoa bultzatu nahi dugu. Taxibus zerbitzu horrek, Auzobusaren antzeko zerbitzua eskainiko du, eta guk ez ditugu zerbitzuak biderkatu nahi. Beraz, Auzobusa kentzea erabaki dugu", adierazi du Iñaki Agirrezabalagak. Hala ere, Foru Aldundiak jarritako zerbitzu horretako kontu batzuetan hobekuntzak egin nahi dituzte; "Foru Aldundiaren zerbitzua ona iruditzen zaigu, baina Aizarnazabalgo eta Zumaiaiko Udalak zerbitzu horretan zenbait aldaketa egitea proposatuko diogu Aldundiari datozen asteotan. Beti ere herritarrei egokitutako zerbitzua eskaintzeko helburuarekin".

Gaur egun, zerbitzu berri hori erabili nahi dutenek beharrezko izango dute Lurraldebus txartela izan behar dute, eta zerbitzua erabili nahi dena baino egun bat lehenago 943 000 117 telefonora deitu beharko dute 09:00etatik 14:00etara bitartean.

Taxi zerbitzu horrek bidaia bakoitzean 4 pertsona garraiatzen ditu, eta bidaiariak hartzeko eta uzteko Lurraldebu-

cotidianas se quiere hacer una Zumaia cada vez más sostenible. En este sentido, el pueblo se ha ido adecuando para los peatones y para los usuarios y

usuarias de las bicicletas. Además, se ha animado a los ciudadanos para que utilicen el transporte público, y cuando el Ayuntamiento ha considerado la

necesidad de algún servicio puntual, lo ha establecido. Esa fue la filosofía de la legislatura anterior, y esa es la filosofía que seguirá este Equipo de Gobierno.



sen lineetan erabiltzen diren geltokiak erabiliko dira. Neguko ordutegia, honakoa izango da: 9:30ean, 13:30ean, 17:00etan eta 19:30ean Zumaia tren geltokitik irtengo du. Aizarnabalgo plazatik irtengo du 10:00etan, 14:00etan, 17:30ean eta 20:00etan. Udan, berriz, Zumaia 9:30ean eta 17:00etan irtengo da zerbitzua, eta Aizarnabaldik 10:00etan eta 17:30ean.

Mugi zerbitzua

Duela bi urtetik gora ezarri zen Mugi bizikleta zerbitzua Zumaian, eta abian jarri zenetik, erabiltzaile ugari ditu herrian. Zerbitzu hori ere, Zumaia herri gero eta jasangarriagoa bihurtzeko helburuaren baitan ezarri zuen Zumaia Udalak.

Bizikletak maileguan erabiltzeko aukera

herritarrei eskainiz, herritarrak herri barruan dituzten mugikortasun ohituretan eragitea izan da helburu nagusia.

Apustu sendoa izan da Zumaia Udalak egindakoa, eta herritarren aldetik ere erantzun ona izan du zerbitzuak. Izan ere, erabiltzaile ugari ditu zerbitzuak, eta eguneroko erabilera kopuruak ere datu politak uzten ditu.

Azken aldia izan diren txikizioak ikusita, Zumaia Udalak neurri berriak hartu behar izan du

Hala ere, azken hilabeteotan Mugi bizikleta zerbitzuan, matxura eta hauste asko izan dira. Adibide gisa, bi datu: ekainean 9 bizikleta hautsi zituzten, eta uztailan, berriz, 8. Irailean zerbitzuan

hiru bizikleta besterik ez ziren gelditzen erabilgarri. Hori ikusirik, Zumaia Udalak zerbitzu horren aldeko beste apustu sendoa egin zuen, eta beste 10 bizikleta berri erosi zituen. Horretaz gain, ordea, beste zenbait neurri ere hartu ditu Udalak. Neurri batzuk, dagoneko, abian dira, eta beste batzuk datozen asteotan jarriko dira indarrean.

Urriaren erdi aldetik aurrera, gauero bizikletak kendu egiten dira bizikletagune guztietatik. Hori dela eta, zerbitzuaren ordutegia ere murriztu egin behar izan da. Hemendik aurrera, 07:30etatik 22:00ak arte izango da erabilgarri zerbitzua.

Orain dela hilabete batzuk ere, zerbitzu honen erabilera zuzena egiteko, neurriak hartu behar izan ziren. Orduan, adin txikikoek zerbitzua ezin zutela erabili

El Ayuntamiento de Zumaia ya ha avanzado en este sentido, y ya se ofrecen algunos servicios e instalaciones para la movilidad sostenible. El servicio de bicicletas Mugi, por un lado. Y la red de los carriles bici, por otro. Pronto esta red, también, será ampliada en pocas semanas el carril bici y el

paseo de peatones, que se está construyendo entre la rotonda de Txikiendi y Jadarre, ya se podrá utilizar. El tramo que va desde la rotonda hasta Narruondo se prevé que lo realice la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El autobús Auzobusa, que realizaba el tramo entre Zumaia y Oikia ha sido

sustituido por otro servicio que ha implantado la Diputación, el taxibus. Las personas interesadas en este servicio, deben disponer de la tarjeta de Lurraldebus, y tienen que llamar, 24 horas antes, al teléfono 943 000 117. Aunque el servicio ya está en funcionamiento, el Ayuntamiento de Zumaia, junto con el Ayuntamiento



erabaki zen. Hemendik aurrera, neurri hori erabat betetzeko erabiltzaileen jarraipen zehatzagoa egingo da Rezikleta enpresaren eta udaltzaingoaren bidez. Erabili ezin duenen bat zerbitzua erabiltzen harrapatzen bada, neurriak hartuko dira.

Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren zehaztuta dago, eta Zumaiako Udalak betebeharrak ez betetzeak sortuko dituen ondorioak zehazteko ordenantza bat eramango du urriaren bukaerako plenora. Behin hori onartzen bada, arauen hausteak erabiltzaileentzat ondorioak, hau da, zigorrak jasoko ditu.

Proiektu berriak, esku artean

Zumaiako Udalak zerbitzu horri lotuta asmo eta proiektu berriak ere izan

ditu eta baditu esku artean. Hala nola, Donostian dagoen bizikleta sistemarekin Zumaiakoa lotzeko gestioak ere egin izan dira. Zumaiako Udalak apustua sendoa da, baina herritar gutxi batzuen erruz, zerbitzua bera ere kolokan gelditzen ari da. Gaur egun inbertsioak bat bestearen atzetik egin behar baitira zerbitzu honetan. Eta martxa honetan ezin da jarraitu.

Zumaiako Udalak gogoratu nahi du herritarrentzako zerbitzua dela, eta denon ardura dela zerbitzu honek zerbitzu duin bat eskaintzeko aukera izatea. Hau da, guztiona izanik, guztion lana da bera egoki erabili eta zaintzea. Beraz, dei egiten die herritarrei, giza legezko jarrerak izan eta zerbitzuaren erabilera ona egiteko.

Bidegorri sarea handituz

Mugi zerbitzuko bizikletekin, zein norbere bizikletekin herrian mugitzea errazteko amoz, Zumaiako Udala bidegorri sarea handitzen ari da pixkanaka. Gaur egun, Jadarre auzotik Txikiardiko biribilgunea arteko bidegorria azken txanpan da. Zumaiako Udalaren aurreikuspenen arabera, azaroan bukatuko dute bidegorri zati hori egitea.

Ondorengo proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago. Izan ere, Zumaiako Udalak eta Foru Aldundiak Txikiardiko biribilgunetik Narruondora bitarteko zatia egitea adostu zuten. Zumaiako Udalak behar diren ahalegin guztiak egingo ditu proiektu hori lehenbailehen gauzatzeko.

de Aizarnazabal, va ha pedir mejoras en el mismo para responder a las necesidades de los oikiarras.

El Equipo de Gobierno tiene una valoración positiva del autobús Auzobusa: "Desde el principio sabíamos que este servicio era deficitario, pero nuestro objetivo era completar el servicio que ofrece

Euskotren. La gente lo ha valorado, y lo ha utilizado", remarca Iñaki Agirrezabalaga.

Desperfectos en las bicicletas

En los últimos meses, han aparecido dañadas o rotas muchas bicicletas del servicio de alquiler Mugi. Como dato, en junio

aparecieron rotas 9 bicicletas y en julio 8. A finales de septiembre, solo había 3 bicicletas que se podían utilizar. Tras valorar la situación, el Ayuntamiento optó por mantener el servicio y para ello compró 10 bicicletas nuevas. Viendo el uso inadecuado del servicio ha cambiado algunas normas de uso, y ha impuesto algunas otras.

Hondakinen kudeaketa ereduak aztergai

Azterketa baten arabera, atez ateko sistema teknikoki eta ekonomikoki bideragarria da; eta, gainera, gaur egungo sistemak baino defizit txikiagoa sortuko luke.



Zumaiako Udalak hondakinen kudeaketa sistemen inguruko eztabaidarako herritarrek informazio jaso eta eztabaidatzeko bideak irekitzearen alde egin du azken urteotan. Asmo horrekin jarri zuen abian Hondakinen Batzorde Herritarra sortzeko prozesua iazko legealdian. Prozesu horretan jasotako ondorioei kasu eginez, eta gai horren inguruan beste pausu bat eman nahian, hondakinen kudeaketa sistemen inguruko azterketa bat eskatu zion Udalak Garbitania enpresari, urte hasieran. Irailaren bukaeran, berriz, herritarrei azterketa horren emaitzak azaldu zitzaizkien bilera baten bidez. Zumaiako Udalak azterketa horren emaitzak azalduz, gaur egun jendartean hondakinen kudeaketaren inguruan dagoen eztabaidarako eta hausnarketarako informazioa eman nahi du. Eta argi

utzi nahi du gaur egun ez dela ezer erabaki, azterketa bat besterik ez dela egin.

Garbitania enpresak egin du udaleko eta mankomunitateko datuekin hondakinen inguruko azterketa

Garbitania enpresak egindako analisian, gaur egungo edukiontzietako sistema aztertu eta atez ateko sistemarekin alderatu da. Horretaz gain, teknikoki eta ekonomikoki Zumaian atez ateko sistema ezartzea bideragarria dela ere ondorioztatu dute. Gainera, gaur egungo edukiontzien sistema baino defizit txikiagoa ere sortuko luke atez ateko sistemak, Garbitania enpresak egindako azterketaren arabera.

el Ayuntamiento de Zumaia lleva años creando formas para que sus ciudadanos tengan información sobre el debate de la gestión de residuos que se está llevando a cabo en la sociedad.

Con ese objetivo en mente, la pasada legislatura puso las vías para promover la constitución de una Comisión Ciudadana sobre la gestión de residuos. Durante el año pasado y en varias reuniones de la Comisión se respondió a las inquietudes que presentaron los asistentes con respecto a los sistemas de recogida del quinto contenedor y el puerta a puerta, entre otros.

Ahora, la empresa Garbitania, a petición del Ayuntamiento de Zumaia, ha elaborado un análisis sobre la gestión de los residuos de Zumaia. Y a

Herritarrekin bilera

Zumaiako Udalak herritarrei bilera batean eman nahi izan zien azterketa honen berri. Bileran, azterketaren emaitzak plazaratu ziren, eta herritarrek galderak egiteko aukera ere izan zuten.



Zumaian atez ateko sistema ezarri gero 1.900.000 kilo gutxiago isuriko lirateke zabortegira, eta material birziklagarria askoz gehiago bilduko litzateke

Gaur egun, gero eta garestiago

Urte urte edukiontzietako bilketa sistemaren kudeaketak gero eta kostu handiagoa du. 2009an 774.580,88 euroko kostua bazuen, iaz 834.417,39 euro kostatu zen. Gainera, bilketaz gain, bildutakoa zabortegira emateagatik ordaintzen den tarifa ere gero eta garestiagoa da. 2008an 70 euro ordaintzen zen tonako. Aurten, berriz, 133, 89 euro ordaintzen da. Gainera, gaur egun Europar Batasunetik ezarritako legeek kutsatzen dutenek gehiago ordaintzearen aldeko politikak bultzatzen ari dira. Beraz, politika horien arabera, gero eta garestiago izango da gaur egungo kudeaketa sistema.

Garbitaniak egindako azterketaren arabera, aipatu bezala, atez ateko bilketa teknikoki eta ekonomikoki bideragarria da Zumaian ere. Azterketaren arabera, herrigunea eta landa eremuko bilketa

ezberdindu beharko lirateke. Hau da, bi eremu horietan bakoitzera egokituta egin beharko litzateke bilketa. Horretaz gain, gaur egun Zumaiako Udsalak abian duen autokonposta proiektua ere indartu beharra dago. Datu ekonomikoak alderatuz, berriz, azterketaren arabera, atez ateko sistemak gaur egungo sistemak baino defizit txikiagoa sortuko luke. Beti ere, Udal Elkarteak gaur egun gaikako bilketa egiteagatik kobratzen duen dirua jasotzen ez badu (atez ateko sistemarekin bilketa hori ez bailuke egingo).

Teknikoki eta ekonomikoki atez ateko sistema Zumaian ere ezarri daitekeela ondorioztatu du azterketak

Baliabideak

Atez ateko hondakinen bilketaren sistemarekin lanpostu gehiago sortzen

dira; zuzeneko lanpostuak lauokiztu egiten dira, eta zeharkako lanpostuak ere sortzen dira. Beraz, sistema horrek sortzen duen gastua lanpostuetan inbertitzen da, eta ez zabortegiko tasetan.

Zumaian atez ateko bilketa ezarriko balitz, material birziklagarri gehiago bilduko litzateke, gainera. 2010ean birziklatu zenarekin alderatzen bada, papera 200.000 kg gehiago, ontzi arinak 237.000 kg gehiago, organikoa 830.000 kg gehiago eta garbiguneetan material gehiago bilduko da pisu handiko materialak direlako.

Beraz, azterketaren arabera zabortegira 1.900.000 kg gutxiago isuriko lirateke. Material birziklagarri gehiago biltzeaz gain, kalitate hobegokoa litzateke. Hala diru sarrera berri bat izango luke Zumaia, 200.000 eurotik gorako sarrera, hain zuzen ere.

En los finales de septiembre los responsables del Ayuntamiento junto con un técnico de Garbitania explicaron a la ciudadanía los resultados del análisis, en una reunión. El Ayuntamiento quiere dejar claro, que aún no ha tomado ninguna decisión sobre el tema.

El análisis de Garbitania se ha realizado con datos facilitados desde el Ayuntamiento de Zumaia y la Mancomunidad de Costa Urola. Con estos datos, se ha analizado el sistema de contenedores de hoy en día, y se ha hecho un estudio para saber si el siste-

ma puerta a puerta sería viable técnica y económicamente en Zumaia. El resultado ha sido favorable. Además, según los resultados de dicha empresa, el sistema puerta a puerta sería menos deficitario que el actual.

Año tras año el coste del sistema de recogida de los contenedores va en aumento. En el año 2009 su coste era de 774.580,88 euros y el año pasado era de los 834.417,39 euros. Además, a esto se le tiene que sumar la tasa por descargar los residuos en el vertedero. En el 2008 esa tasa era de 70 euros

por tonelada, y a día de hoy es de 133,89 euros.

Según el estudio, si en Zumaia se estableciera el sistema puerta a puerta se recogería más material de reciclaje. Teniendo en cuenta los datos del 2010, se recogerían 200.000kg más de papel, 237.000kg más de recipientes ligeros, 830.000kg más de materia orgánica y se recogería, también, más material pesado en los Garbigunes. Por lo cual, según dicho análisis, se depositarían 1.900.000 kilos de residuos menos en el vertedero.



“Legealdia berritasunak dakarren freskotasunarekin hasi dugu”

Iñaki Agirrezabalaga ez da berria Alkate karguan, aurreko legealdian ere kargu bera izan zuen. Legealdi honen hasierako lehen 100 egunak pasatu ostean Zumaian azken urte hauetan hartutako norabideaz, eta oraingo legealdiko ardatz nagusiez aritu da.

100 egun baino gehiago pasatu dira, alkate izendatu zintuztenetik. Zein da hasiera honen balorazioa?

100 egun pasatu dira, berriro ere kargua hartu nuenetik, baina tartean, abuztua ere izan dugu. Balorazioari dagokionez, orain arteko epealdian, batez ere, Udal Gobernu osatzen dugunok talde bat osatu dugu, eta elkar ezagutu dugu. Jende berri asko daudela kontuan izanda, berritasunak dakarren freskotasun eta indar horrekin eman diogu hasiera

legealdiari. Freskotasun hori gure arteko bileretan ere nabarmentzen da, lanerako gogo asko eta ideia ugari sortzen direlako. Burutazio horiek, ordea, errealitatearekin askotan tupust egiten dute. Mugatuta gaude testuinguru orokor honetan, egoera ekonomikoa ez delako ona.

Zein dira muga horiek?

Udaletxeen diru sarreraren erdia inguru foru aldundietatik jasotzen dugun sarreretatik etortzen da, eta 100 egun horiek bukatzeaz zirela, jakinarazi ziguten, laguntza horien %11 itzuli egin behar dugula aurten. Hurrengo urterako aurtengoarekin alderatuta %7 jaitsiko dutela ere jakin dugu. Hori horrela izanda, badakigu zailtasunak izango ditugula. Egoera zaila izango da, eta legealdia ez da erraz joango; eta,

batez ere, kudeaketan gauzei buelta asko eman beharko dizkiogu, gauzak ondo eta txukun egiteko.

Zu ez zara Udalera sartu berria. Nola ikusten duzu orain aurreko legealdia?

Proiektu garrantzitsuak egiteko aukera izan genuen, tartean Alondegia. Kultur ekipamendu garrantzitsua jarri genuen herriaren erdian, eta hilabete batzuk pasatu ostean bisita kopurua dezente hazi dela esan dezakegu. Horretaz gain, obrei dagokionez, Oikian saneamendu lanak egin genituen, ur-biltegi bat Artadin, Moilaberriko zubia berritu genuen, eta herriko irisgarritasuna asko hobetu da, kaia bera ere berritu zen, eta horrela, inguru horretako aparkalekuak hobeto ordenatu ziren. Aita Marin ere aparkalekuak egin ziren.

Pasados los primeros 100 días iniciales Iñaki Agirrezabalaga, que repite alcaldía en esta legislatura, quiere explicar el camino que ha tomado Zumaia en los últimos años, y adelantar cuales serán las bases de la nueva legislatura.

Según Agirrezabalaga el actual Gobierno ha formado un buen equipo: “En

nuestro equipo hay mucha gente nueva, y eso ha traído ideas frescas y fuerza”, explica. Ahora la labor será contrastar todas esas ideas con la realidad, ya que la situación económica limita la labor del Ayuntamiento. “La situación económica que atravesamos dificulta mucho nuestra labor para gestionar. Casi la mitad de los ingresos que recibe

el consistorio proviene de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y acabamos de saber que tenemos que devolver el 11% de las ayudas recibidas este año. Y ya nos han avisado, que el año que viene recibiremos un 7% menos”, aclara. Pero a pesar de todo, han prometido mantener las prestaciones y las condiciones económicas para esta legisla-

Eta legealdi honi begira, zein izango dira zuen lan lerroak?

Arlo soziala den oro ez dugu ukitu ere egin nahi. Prestazio eta baldintza ekonomikoak mantentzeko konpromisoa hartu dugu.

Garbi daukaguna da obra handiak ezingo direla egikaritu, garai batean bezala. Egunerokotasunean dagoen kudeaketa ondo eta txukun egitea da gure helburua. Obren mantentze lanak ondo egiteko partida txukun bat izango dugu, baina ziurrenik inbertsioetako kapituluak jaitciera nabarmena izango du.

Gai konkretuetara joz, legealdi honetan Zumaia Lantzen elkarte publikoaren egoera ekonomikoari buelta ematea ere lehentasuna da.

Zumaia Lantzenen egoerak modu batean edo bestean udala arrastatu egingo du. Elkarte publikoak duen egoerari buelta eman behar diogu, eta horrek gauzak zaildu egingo ditu. Elkarreak orain dela urte askotatik hartuak zituen konpromiso batzuei aurre egiteko ez du modurik zoritxarrez, obra edo inbertsio horiek zeuden bezala bideratuta zeudelako.

Beraz, nahiz eta Udalaren egoera ekonomikoa ona izan, Zumaia Lantzenen egoerak Udalaren jarduera ekonomikoa baldintzatuko du.

Urte batzuk beharko dira Zumaia Lantzenen egoerari buelta emateko. Zumaia lantzenen arazoa, likidezia arazoa da. Gaur egun Zumaia Lantzenek zenbait proiektu ditu abian, eta proiektu horiek bukatu eta saltzen dituenean, hasiko da errekueratzen.

Beste neurri batean, arazo hori 2004an sinatu zen Torreaga hitzarmenetik dator. Handik 3,8 milioi euro jasotzea espero zuen, eta aurreko legealdian promotoreek adierazi ziguten ez zeudela hitzarmena betetzeko prest, nahiz eta hori sinatua izan. Hitzarmenari begira hasi ginenean ez genuen inongo heldulekurik. Beraz, beste hitzarmen

urbanistiko bat egitera behartuta geunden. Hitzarmen berri horren bidez, zor hori etxebizitza tasatuen bidez ordaintzea adostu zen. Etxeak bukatu eta saldutakoan errekueratuko da diru hori. Beraz, Zumaia Lantzenek duen likidezia horri aurre egiteko behartuta gaude banketxeetan prestamoak eskatzera, eta Udalaren abala eskatzen digute. Legealdi honetan egoera horri buelta eman eta gauzak txukun uzteko modua ikusten dugu.

Legealdi honetan Zumaia Lantzenen egoerari buelta eman, eta gauzak txukun uzteko modua ikusten dugu

Inbertsio eta obra handietarako garaia ez dela izango adierazi dugu. Baina frontoi luzea egingo da, ezta?.

Aurrekontuetatik kanpo gelditzen da frontoia. Frontoia hitzarmen urbanistiko baten bidez egitea hitzartu zen. Hitzarmen hori ere krisi egoeran kokatu behar da. Ardantzabideko partzela bat lehiaketara atera zen, eta hori eskuratzearen ordainetan frontoia egin behar zuen enpresa irabazleak. Lehiaketara enpresa bat aurkeztu zen, eta behin lehiaketa irabazita, finantziario iturrien inguruan betebeharreko baldintzak betetzeko arazoak zituela adierazi zigun. Arlo horretan jarduten duten sustatzaileek finantziario iturriak lortzeko baldintzak, denbora gutxian, asko aldatzen ari dira, nazioarteko merkatuak horrela behartuta. Enpresak azaldutako baldintzak aztertu dira batzordeetan, eta zailtasun horiek ulertu ditugu. Aldaketa horrek berriro lehiaketa egitea eskatzen du. Horrek frontoia egitea ahalbidetuko du, baina epeak luzatu egingo dira.

Udal irekia eta parte hartzailea osatzea duzue oraingoan ere helburu.

Bai, asmo horretan segituko dugu. Udaleko ateak beti zabaldua ditugu

herritarrentzat. Aurreko legealdian ere, ni alkate nintzela, horrela izan zen, eta horrela jarraituko du izaten orain ere. Bai nire partetik, eta baita beste edozein zinegotziren partetik ere. Herritarren eskaerak ditugunean, beti gara beraiekin egon eta herritarren eskaera, kexa eta iradokizunak jasotzeko prest.

Herritarren Parte hartze Batzordea indartu ere egin duzue.

Aurreko legealdiaren eratu genuen, baina eratu berria izan zen. Legealdiaren bukaeran hasi zen teknikaria ere lanean. Pixkanaka-pixkanaka joan gara forma eman eta gorpuzten batzorde hori. Aurreko legealdiko azken hilabeteetan hasi zen teknikaria lanean, eta nahiz eta herritarren partaidetza, gaztedia, berdintasuna eta etorkinak izan batzordean lantzen diren gaiak, eskertzekoa da teknikariak egiten duen lana arlo horretan. Legealdi honetan indarra hartzen joatea espero dugu.

Udal Gobernuari dagokionez, oposizioko taldeekin akordiotara iristeko borondatea al duzue?

Aurreko legealdiarekin alderatuz, zinegotziei dagokionez formak aldatu egin direla uste dut. Oraingoak egokiagoak direla uste dut. Hala ere, 100 egun bete ondoren, alarma piztu zait, eta ez zait batere gustatu, EAJ-k ateratako aldizkaria. Horretarako eskubide osoa du, eta hori ez da arazoa. Kontua da, aldizkaritxo horretan esaten direnak eta ematen zaion kutsuak aurreko legealdia gogorarazi didatela. Formak aldatuko zituztela esaten zuten haiek, zalantzan jarri dute esandakoa. Guk gure prestutasun eta borondate osoa ari gara erakusten, baina argi adierazi nahi dugu ez gaudela prest zenbait gauza entzun eta irakurtzeko. Garbi daukaguna da gu gobernatzeko gaudela, eta gobernatuko dugula. Informazio osoa emateko prest gaude, eta baita eztabaidatzeko prest ere. Baina ez edozein modutara.

ción: "Tenemos claro que no podremos hacer grandes inversiones en obras, como hace años. Nuestro objetivo es llevar una gestión adecuada a los tiempos", explica Agirrezabalaga.

Uno de los quebraderos de cabeza de este Ayuntamiento, es y será Zumaia Lantzen: "Dar la vuelta a la situación

económica de Zumaia Lantzen nos llevará años, pero prevemos resolver esta situación antes de finalizar la legislatura", asegura Agirrezabalaga.

Aunque no sea época para las grandes obras, el frontón de Zumaia sigue su curso. "El frontón queda fuera de los presupuestos, ya que se realizará con

un convenio urbanístico. Muy pronto volverá a salir a concurso la realización del frontón, ya que el consistorio se ha visto en la necesidad de adecuar las bases a las condiciones de financiación actuales", explica. De este modo, aunque se alargue el plazo, se posibilitará construir el frontón.

Alde Zaharra zainduz

Zumaiako Udalak Alde zaharreko galtzadako zuloak-eta konpontzeko obrak hasi ditu. Hilabete inguruko epean lanak eginda egongo direla aurreikusten da.



alde Zaharreko zoruak duen egoeraz ohartuta, Zumaiako Udalak zulo eta bestelako kalteak konpontzeko lanak hasiak ditu. Lan horien bidez, Alde Zaharrean, batik bat, garraio astunek sortu dituzten galtzada hondoratzeak eta zuloak konpontzea da helburu.

Hilabete inguru iraungo dute lanek, eta bi fasetan egingo dira. Fase bakoitzean, trafikoan aldaketak eragingo dira. Zumaiko Udalak herritarrei lanek irauten duten bitartean Alde zaharrera autoan ez joateko eskatzen die. Horrela, hainbat trafiko arazo ekidin baitaitezke.

Lehen fasea urriaren 17an hasi zen. Lan horiek Angeles Sorazu kalean hasi ziren, eta, beraz, Txomin Agirre kaitik Angeles Sorazu kalea hartzea ezinezkoa da. Hala ere, Zumaiako Udalak Angeles Sorazu kalean dauden

garajeetarako sartzeko pasabidea utzita du.

Foruen plazara joan nahi duenak, San Juan egoitzaren ingurutik behera iritsi beharko du. Lanak, berez ez dira oso luzeak izango, baina behin konponduta hormigoia lehortu bitartean zapaldu gabe egon behar du, eta horregatik izango dira kaleak itxita, nahiz eta obrarik ez izan.

Behin, lehen fasea bukatuta, bigarren faseari ekingo diote. Fase horretan, Foruen Plazatik Bonifazio Etxegarai bitarteko zatia konponduko dute. Beraz, trafikoa Angeles Sorazu aldetik bideratuko da.

Lan horiek Martin Irigoyen enpresak egingo ditu, eta guztira 22.471 euroko aurrekontua dute. Gainera, obra horiek 7 urteko garantia dute.

el Ayuntamiento de Zumaia está realizando algunos arreglos en la calzada de la Parte Vieja, para reparar los hundimientos y pequeños desperfectos que tiene la calzada.

Los trabajos ya han comenzado en la calle Angeles Sorazu y sus alrededores.

Por ello, esta calle permanece cerrada al tráfico y los vehículos que deseen subir a la plaza de los Fueros tendrán que hacerlo por los alrededores de la residencia San Juan.

Aunque las obras de reparación no duraran mucho, la calle permanecerá cerrada al tráfico algunos días para que se seque el hormigón.

Udalak aholkularia izango du aurrerantzean



Irailaren 29ko plenoan onartu ostean, azaroaren erdi aldetik aurrera Zumaiako Udalak konfiantzazko aholkularia izango du. Plenoan Udal Gobernuako kideen aldeko batua jaso zuen proposamenak, eta kontra bozkatu zuten, aldiz, EAJ eta PSE-EEK.

Udal Gobernuak osatzen duen Bildu koalizioak aurreratu zuenez, konfiantzazko postu hori Andoni Etxaniz aurreko legealdian alkateorde izan zenak beteko du, urtebetez.

Udal Gobernuak azaldu zuenez, "ez ohiko neurri bat da, ez ohiko beste erabaki batzuen ondorioa", zerrenden ilegalizazioari erreferentzia eginez.

Udal Gobernu "berria eta esperientziarik gabea" dela arrazoitu zuten, eta esperientzia hori emango dien norbaiten "laguntza beharrezkoa da une honetan", gaineratu.

el Ayuntamiento de Zumaia aprobó en el pleno del 29 de septiembre la creación de un puesto de asesor de confianza. El puesto lo ocupará, según adelantó la coalición Bildu, Andoni Etxaniz, teniente alcalde de la legislatura anterior.

Esta propuesta obtuvo los votos a favor de la coalición Bildu (6) y Aralar (1). Votaron en contra PNV (5) y PSE-EE (1).

Irailaren 29a

1-Aurreko bileretako aktak onartu ziren aho batez.

2- Hirigintza.

2.1. Zumaiako 17 HA artadiko 17/3 EUko 4e partzelari eta 17/2 EUko 1.1 eta 1.2 partzelei dagokion antolaketa xehekatuaren aldaketa puntualerako plan berezia onartu zen. Abstenitu egin zen EAJ (5). Bildu (6), Aralar (1) eta PSE-EE-k (1) alde bozkatu zuten.

3- Pertsonala.

3.1. Langileen lanpostuen zerrendaren aldaketa onartu zen. Alde bozkatu zuten Bildu (6) eta Aralarrek (1); kontra azaldu ziren, berriz, EAJ (5) eta PSE-EE (1).

4- Euskara.

UEMA-ko ordezkariak izendatu ziren. Horrela, Azis Alberdi, Iñaki Ostolaza, Eneko Agirre eta Montse Arana izango dira Zumaiako Udalak UEMAn izango dituen ordezkariak. PSE-EE-e abstenitu egin zen, eta beste alderdi guztiek izendapen horien alde bozkatu zuten.

5- Proposamena.

Zumaiako Bildu eta EAJ taldeek aurkeztuta: 'Txirrindularitzari bai!, inposaketari ez!' mozioa onartu zen. Mozioaren alde egin zuten Bildu (6), EAJ (5) eta Aralarrek (1). Kontra bozkatu zuten, PSE-Eek (1).



Legealdiko lehen 100 egunak igaro dira. Legealdi berria, zinegotzi berriak, aukera berriak... Erronkaz, ilusioz eta lanerako gogoz betetako legealdia hasi dugu.

Batzuek, ordea, ehun egun hauetan argi utzi dute oposizioa egiteko erabiliko duten estiloa, betiko estiloa. Alkatearen soldatarekin ez omen daude ados, baxuegia delako; lehen zioten liberatu bat gutxiegi zela Zumaia bezalako herri baterako, eta orain bigarren liberazioa mahai gainean jarri dugunean, liberatua zinegotzia ez izatea errespetu falta iruditzen zaie. Beste udal batzuetan (Tolosan, adibidez) edo foru-aldundietan normala dena Zumaian salagarri omen da. Bilduk garbi dauka egoera ez ohikoa dela, eta eskura zeuden aukerak aztertuta ez ohiko konponbidea hartu behar izan dugu; Alderdien Legeak Zumaian ere ia 200 herritarren eskubideak murriztu ditu, hauteskundeetan ezin izan dira aurkeztu udal hauteskudetara; lantalde berria da, eta martxa hartzeko, beharrezkotzat jo dugu konfiantzako eta esperientzia handiko norbaiten laguntza. BILDUK hauteskundeak irabazi zituen, 2.057 zumaiaarren babesarekin; beraz, 2.057 arrazoi ditugu BILDUKo zinegotziei eta zinegotzi izateko aukera ere izan ez dunei errespetua eskatzeko. Babesik ez dugu eskatuko, baina errespetua bai.

Legealdi gogorra dugu aurretik. Batzuk saiatuko dira ahal den lekutik Gobernu Taldeari eraso egiten, baita horretarako polemika antzuak hauspotu behar badituzte ere. Gehiago arduratzen gaituzte beste gai batzuek. Adibidez, egoera ekonomikoa gero eta okerragoa da, eta PSOEk PNVren laguntzarekin Madrilen onarturiko murrizketek ez dute balio izan herritarren arazoak konpontzeko; akaso kapitalaren arazoak arinduko zituzten, baina herritarrengan kalterako eragina izango dute, gehien behar dutenak gutxiagorekin moldatu beharko dute. Zumaiaiko Udalaren aurrekontuetan ere eragingo du krisiak eta egoera ekonomikoak; lehentasunak argi ditugu, ordea, eta oinarrizko zerbitzuak bere horretan mantentzeko lan egingo dugu, eta ahal badugu indartzeko ere bai.

Azkenik, sortu dugun egoera politiko berriak itxaropena eta ilusioa ekarri du gure herrira. Herri bezala, politikoki eta ekonomikoki erronka handiak ditugu aurrean, aro berri bat, egoera berri ezagutzear garelako esan genezake. Laster, azaroan, beste urrats bat egingo dugu aurrera, eta gurekin etortzera gonbidatzen zaituztegu.



Es la segunda vez en esta legislatura que tenemos la oportunidad de escribir en esta columna. En adelante alternaremos los textos en euskara y castellano.

Han pasado los cien días que se dan a todo gobierno para que pueda expresar sus intenciones, sus proyectos, su programa. En estos días no hemos visto iniciativas; prácticamente el Ayuntamiento no se ha puesto en marcha. Parece que con la llegada del otoño empieza a haber más actividad. Creemos que Zumaia necesita un gobierno fuerte, que tome decisiones, que plantee iniciativas para tratar de aliviar la grave situación económica que estamos atravesando, también en nuestro Ayuntamiento. Situación agravada por la "alegría" con la que durante los últimos años se ha gastado, haciendo uso de forma incorrecta del remanente (ahorro) con el que se encontró el anterior gobierno municipal. Ahora ese fondo se ha acabado y como no parece que haya intención de reducir gastos hay que endeudarse.

Lo grave a nuestro juicio es que ya se sabía (o por lo menos se avisaba) que estas necesidades que ahora apremian iban a llegar y en vez de actuar con la prudencia debida en toda labor de gestión, se optó por ir gastando los ahorros y luego... ¡ya se verá!

Ahora se necesitan 4 millones de euros, que supone el doble de la capacidad inversora del Ayuntamiento y el 33% de su presupuesto anual. ¿Cómo lo va a hacer el gobierno municipal? Pronto habrá que empezar a hablar del presupuesto de 2012. Veremos cuáles son las propuestas que se plantean. EAJ-PNV cree que es imprescindible establecer prioridades de gasto, hacer recortes con criterio y no seguir gastando (servicio MUGI) o asumir nuevos servicios (recogida "puerta a puerta"),... Nunca olvidar las necesidades básicas de nuestro pueblo.

Tenemos que arreglar y mantener adecuadamente nuestras calles y mobiliario urbano, hay que resolver la construcción del frontón, hay que conseguir que el ayuntamiento esté abierto a toda la ciudadanía, de verdad, respetando la legalidad y habrá que plantear y proponer iniciativas que nos lleven a la consecución real de la paz y la convivencia. Para conseguir el grupo municipal de EAJ-PNV está dispuesto a apoyar y arrimar el hombro, pero siempre con planteamientos serios, en base a un programa y con la legalidad por delante.



en el Pleno celebrado el Día 29 de septiembre, se reproduce una vez más la hipocresía en la gestión al dar a la mentira categoría de ley, se aprobó con los votos de Bildu y Aralar la contratación de Andoni, anterior concejal de Urbanismo como personal de confianza dependiente de Alcaldía. Todo normal si no fuera, porque se presenta la contratación como una decisión de última hora y por la imposibilidad de atender la totalidad de la gestión municipal por falta de tiempo, mentira.

Primero, porque al día siguiente de las elecciones éste indica que no se incorporará a su trabajo porque va a trabajar en el Ayuntamiento.

Segundo: No devuelve el móvil con cargo al Ayuntamiento y ha seguido haciendo uso del mismo de forma privada, pasando las facturas al Ayuntamiento como confirma el departamento de Hacienda, aunque nos dicen que el dinero ya ha sido repuesto.

Tercero: Sólo la inoperancia en la gestión, dado que está en estudio, de acuerdo con los concejales responsables a cualquier pregunta que se haga sobre esto o lo otro, cuando cuentan con 6 concejales más el alcalde para dar gestión y nos encontramos parados.

En segundo lugar ahora ya no importa, (se han ganado las elecciones) reconocer la necesidad con urgencia de pedir un crédito a los bancos o cajas de cuatro millones de euros, que en el anterior mandato fue motivo por el que recibimos los concejales de la oposición todo tipo de elogios, tanto en prensa como en la página municipal desde la Comisión de Gobierno, cerrándose las cuentas municipales del 2010 en positivo. ¿alguien puede creerse que de mayo a septiembre, han cambiado tanto las cosas?, esto lo vimos denunciando durante los 4 años del anterior mandato, sin éxito, porque todo hay que reconocerlo.

En tercer lugar en la Comisión de Desarrollo sostenible del día 3 del 10 de 2011, se trató el tema del servicio MUGI, que no estuvimos de acuerdo en su implantación por el coste que suponía para las arcas municipales, y ahora se confirma que de 58 bicicletas no quedan más que 3 en servicio, debido al vandalismo en el uso de las mismas, y contrato hasta junio de 2012, que nos costará más de 40.000 euros más el coste de las correspondientes bicicletas nuevas, o sea un suma y sigue ¿Hasta cuando??



mugi zerbitzua ezartzeak Zumaian koste ekonomiko handia ekarri du. Zerbitzu aldetik oso interesgarria da eta bizikleta sustatzeko egin zen, baina herritarren edo kanpoko jendeak ez duelako zaindu, zerbitzu hau desagertzeko zorian dago. Udal honek beste aukera bat eman nahi dio zerbitzu honi, eta ez badugu zaintzen denon artean, datorren uztailean kontratua berri beharrean, bertan behera geldituko da zerbitzu hau. Aurrekontuetan bizikleta gehiago erosteko diru partida jarri beharko dugu. 58 bizikletekin hasi ginen eta 3 gelditzen dira (gehi 10 berri). Ordenantza bat garatzen ari gara eta ondare publiko hau zaintzea denon lana izango da. Norbaitek ikusten badu zer bait salagarria, faborez udaltzainei deitu.

Auzobusa zerbitzua bertan behera utzi dugu, baina ez bertako herritarrei zerbitzua kenduta, baizik bikoizten ari ginelako zerbitzua. Auzobusa udalak ordaintzen du eta Foru Aldundiak taxi zerbitzua jarri berri duena, berak ordaintzen du. Gauden egoeran ez gaude dirua botatzeko.

Hondakin kudeaketa aldaketa bat egiteko, txosten bat eskatu zitzaion Garbitania enpresakoei, hain zuzen atez ateko bilketako sistema ezarriko bagenu, kosteak, bideragarritasuna, etab. aztertzeke. Zori txarrez, kontzientzia oraindik landu beharreko gaia da, eta agian ez dira gauzak garbi esan, edo ez dira ulertu nahi. Gure mendi zuloak, zaborrez betetzen ari gara, kontsumoa gehitzen doa ... Guzti hau gaur egun ezin da onartu eta Europatik datozen legeak gero eta gehiago estutzen ditu kutsatzen duten herrialdeei. Aspalditik Europan debekatu nahian dabilta gaika ez diren egiten bilketak. Irtenbideak oso konplikatuak dira, baina gutxiago kontsumitu behar dugu eta batez ere hondakin asko duten gaiak. Polimeroekin (plastikoak) lan asko egin behar da arautzen hainbeste motakoak ez kaleratzeko, eta organikoak %100 iritsi behar gara. Guzti hau kontutan hartuta, Euskal Herrian gehien hurbiltzen diren herriak Europatik datozen neurrietara, atez ateko sistema dutenek dira. Txosten honek dioena, posible dela jartzea Zumaian eta gaur egungo kostu ekonomiko gutxiagorekin gainera.

agenda *urria octubre / azaroa noviembre*

Erakustetak Alondegian /

Exposiciones en la Alondegia

Urriaren 16ra arte, MLDJ-2011 egitasmoa: Manu Uranga, Lorea Alfaro, David Martínez eta Jon Otamendi. *Hasta el 16 de octubre MLDJ-proyecto 2011. Manu Uranga, Lorea Alfaro, David Martínez y Jon Otamendi.*

Urriaren 22 eta 23an Baleikek antolatutako bigarren eskuko liburu azoka. *El 22 y 23 de octubre feria de libro organizado por Baleike.*

Urriaren 26tik azaroaren 13a arte, Biladi Hadi, Palestinarekiko elkartasun brigada kulturalaren argazki erakusketa. *Del 26 de octubre al 13 de noviembre: exposición de fotos de Biladi Hadi, brigada cultural den solidaridad con Palestina.*

Azaroaren 16tik aurrera, Darahli Elkartearen erakusketa. *Del 16 de noviembre en adelante: exposición de la Asociación Darahli.*

Bisita gidatuak / *Visitas guiadas*

Urria: 15ean, 10:00etan irteera geologikoa eta txalupa. 16an, 11:30ean, ibilaldia txalupaz Zumaia-Deba-Zumaia. 22an, 10:00etan, irteera geologikoa eta txalupa. 23an, 09:00etan, Flyscharen trekkinga Deba-Zumaia. 29an, 16:00etan, Flyscharen ibilbidearen ibilbide osoa.

Octubre: día 2 a las 11:30, Paseo en barco Zumaia-Deba-Zumaia. día 8, 09:00 Avistamientos de cetáceos en barco. A las 10:00, salida geológica y paseo en barco. A las 16:00, ruta del Flysch, ruta completa. Día 9, a las 10:00, trekking del Flysch Zumaia-Deba. A las 11:30, paseo en barco. Día 15, a las 10:00, salida geológica y paseo en barco. Día 16, a las 11:30, Paseo en barco, Zumaia-Deba-Zumaia. Día 22 a las 10:00 salida geológica y paseo en barco. Día 23 a las 09:00 Trekking del Flysch Deba-Zumaia. Día 29 a las 16:00 Ruta completa del Flysch.

Azaroaren 1, 5 eta 12an, 10:00etan hasita irteera geologikoa eta txalupa. 20an, 09:00etan, Flyscharen trekkinga Deba-Zumaia

Los días 1, 5 y 12 de noviembre, a las 10:00 salida geológica y paseo en barco. El día 20 Trekking del Flysch Deba-Zumaia.

Urria / *Octubre*

Larunbata, 15 *Sábado*

20:00etan, Diskofesta Kofradian. *Diskofesta en la Kofradia.*

Igandea, 16 *Domingo*

12:00etan, 'Arratxitxo pinpirina' haur antzerkia Aita Mari aretoan. *Teatro infantil 'Arratxitxo pinpirina' en la sala Aita Mari.*

Asteazkena, 22 *Miércoles*

17:30ean, ipuin kontaketa, kontukantoi taldearen eskutik. *Cuenta-cuentos con el grupo Kontukantoi.*

Urriaren 22tik 23ra arte, Baleike elkartearen liburu azoka, Alondegian. *Feria del libro de la asociación Baleike en la Alondegia.*

Osteguna, 27 *Jueves*

21:45ean, 'El arbol' filma zine forumaren eskutik, Aita Mari aretoan. *Cine forum 'El arbol', en la sala Aita Mari.*

Ostirala, 28 *Viernes*

19:30ean Julian Bereziartua medikuarekin solasaldia, Gunek antolatuta Forondako ganbaran. *Charla con el médico Julian Bereziartua organizado por Gune en Foronda.*

22:00etan, 'De cómo moría y resucitaba Lazaro, el lazarillo' antzerkia, Aita Mari aretoan. *Teatro 'De cómo moría y resucitaba Lazaro, el lazarillo' en la sala Aita Mari.*

Urriaren 28tik 30era arte, asteburu mikologikoa. *Semana micológica desde 28 hasta el 30 de octubre.*

Azaroa / *Noviembre*

Asteartea, 1 *Martes*

19:00etan, Tolosako abesbatza topaketen baitako kontzertua: Letoniak Youth Choir "Balsis" abesbatza, Parrokian. *A las 19:00 concierto del certamen del coro de Tolosa: el coro Youth Choir "Balsis" de Letonia.*

Osteguna, 3 *Jueves*

18:00etan, 'Como vivir y vencer la soledad: teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa' hitzaldia Lorena Pidalen (Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa zerbitzuko zuzendaria) eskutik, Brankan. *Charla 'Como vivir y vencer la soledad: el teléfono de la soledad de Gipuzkoa' con la directora del servicio del Teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa, Lorena Pidal.*

Osteguna, 10 *Jueves*

17:30ean, ipuin kontaketa, Apika taldearen eskutik. *Cuenta-cuentos del grupo Apika.*

19:00etan, 'Zumaiaiko itsas-motorrak eta makinak' ZIIZ elkarteak antolatuta Algorri Interpretazio Zentroan. *'Zumaiaiko itsas-motorrak eta makinak' en el centro de interpretación Algorri organizado por la asociación ZIIZ.*

Ostirala, 11 *Viernes*

19:30ean, Otoitz-meditazio saioa: Yoga, Gune-k antolatuta Forondako ganbaran. *A las 19:30 horas, sesión de Oración-meditación: yoga, organizado por Gune, en Foronda.*

Igandea, 13 *Domingo*

12:00etan, 'Anaki' haur antzerkia, Logela multimedia taldearekin, Aita Mari aretoan.

Teatro infantil 'Anaki' del grupo Logela multimedia en la sala Aita Mari.

Azaroaren 16tik 20ra arte, Zumaiaiko X. Klarinete Maratoia. Kontzertuak, ikastaroak... *Del día 16 hasta el 20 de noviembre X. Maraton de Clarinete de Zumaia. Conciertos, cursos....*

Ostirala, 18 *Viernes*

22:00etan, 'Gure bide galduak' antzerkia Dejabu taldearekin, Aita Mari aretoan.

Teatro 'Gure bide galduak' de la compañía Dejabu, en la sala Aita Mari.

Larunbata, 19 *Sábado*

20:30etan, Donostiako Ibaeta eta herriko Beheko POLaza abesbatzaren kontzertua, Parrokian.

Concierto del coro Ibaeta De Donostia y Beheko Plaza de Zumaia, en la Parroquia.

Azaroaren 19tik 22ra bitartean, Xixili Eguna dela aitzakia hartuta, Musika Patronatuak kontzertu eskaintza osatuko du... *Del día 19 de noviembre hasta el 22, con motivo del día de Santa Cecilia el Patronati de Música ofrecerá una programación de conciertos.*

Ostirala, 25 *Viernes*

19:30ean, Izaskun Andonegik 'Zaintza paliatiboak eta dolua' hitzaldia emango du Gunek antolatuta, Forondako ganbaran. *Charla 'Duelo y cuidados paliativos' con Izaskun Andonegi, organizado por Gune, en Foronda.*

